



INDEPENDENTZIA

## Aukera ala ametsa?

**Elkarrizketa**

**Mario Zubiaga**

EHUko Euskal Nazionalismoa masterreko burua

**Iritziak**

**Mertxe Colina • Joseba Egibar • Floren Aoiz  
Carles Puigdemont • Pako Aristi • Xabier Aierdi**

# “Hitz magiko bat balego, hori aldebakartasuna da”

A sko hitz egiten da independentziaz, eta helmuga horretara iritsi nahi duenak Abadaki bidea langaz bete dagoela. Bide horretako oztopoez, aukerez, eta kontraesanez, aldiz, gutxi hitz egiten da. Hori da orrion helburua, horietan sakontzea. Egoera aldatzen ari da European, hor dira Kataluniako eta Eskoziako kasuak, eta Euskal Herriari ere zabal dakioke bere leihoa. Euskal independentismoa zertan den aztertzeko elkarrizketatu dugu Mario Zubiaga, EHUko Euskal Nazionalismoari buruzko Masterraren burua.

## Abertzaletasunean serio hartzen al da independentziaren ideia?

Agenda arazoa dago hor eta familia abertzaleko bi korrante handiak beste gai batzuk jarri dituzte independentziaren aurretik. Ulertzekoa ere bada, ziklo luze batetik gatoz eta beste batera pasatzen ari gara, eta trantsizio fase batean gaude. Agian sei hilabete barru bai, batek daki, baina hau ez omen

da estatugintza, naziogintza eta herrigintza jorratzeko unea. Ezker abertzalearentzat garrantzitsua da aurreko gatazka ziklo hori behar bezala konpontzea; hau da, akordio zabalak, elkarrizketa, kontsentsua, PSErekin eta EAJrekin bederen akordio batzuk lortzea gai horretan... Filosofia hori dago eta hau aurrera ateratzeko ez da Estatuarekiko harremana tenkatzea komeni, Katalunian bezala, horrek ez du konponbidea errazten.

## ■ Elkarrizketa eta koordinazioa: Xabier Letona

---

**Azala:** Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

**LARRUN pentsamendu aldizkaria** ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.363. zenbakiarekin banatua, 2013ko martxoaren 31n)



IÑIGO AZKONA

**“Familia abertzaleko bi korrante handiek beste gai batzuk jarri dituzte independentziaren aurretik”.**

EAJren kasuan, Lizarra-Garazitik aurrera egin-dako ibilbidea dela eta, badu trauma historiko bat: alderdi barruan arazoak izan zituzten, Ibarretxeren plana gaizki bukatu zen eta, gainera, gobernutik kanpo geratu ziren. Hori guztia bizi izanda, orain ez du arriskatzeko gogorik, eta euskal estatuaren aldeko hautua egiteak esan nahi du politikoki arriskatu behar duzula, horrek polarizazio egoera gogor bat dakarrelako. Gainera, inguruko gertaerek ere eragiten diote eta EAJk beldur dio Artur Mas-en sindromeari.

**Orduan, logikoena da pentsatzea EAJ kudeaketaren eszenatoki horretan mugituko dela, baldin eta, adibidez, Madrilén zentralismo zorrotzak beste zerbaitezara behartzen ez badu.**

Kontua da, ea bide hori zein neurrian den baliagarri gaur egun autogobernua edo estatugin-tzan aurrera egiteko. Egungo euskal eszenato-

kiak, kudeaketa hutsean oinarritzen denak, badu abantaila bat eta zera da, Estatuan Katalunia doala aurretik independentziaren bidean, eta beraz, Estatuari ez zaiola interesatzen bigarren fronte bat zabaltzea eta Euskal Herriarekin abegikorragoa izan daitekeela. Sinesten baduzu bide horrek gaur egun balio duela estatugintzarako – nik ez dut sinesten–, une honetan agian eman daitezke aurrerapausoak estatutua betetze bidean edo –EAJk nahi duena– xedapen gehigarrien bidez etorriko diren lege zentralizatzaileak hemen aplikatu ez daitezken.

Eszenatoki mugatu horretan, EAJk badu eroso mugitzeko aukera eta ondo mamitua du zirrikitu horrek uzten dion marko diskurtsibo orokorra, hau da, ikuspegi forala eta eskubide historikoen bidea. Azken fase historikoan, EAJren barruan tentsioan dira bi ideia: batetik, eskubide demokratikoa, herri honek erabakitzeko



duen eskubidea; eta bestetik, eskubide historikoak, foru eskubideak, eta horiek buruz buruko harremanetan jartzen zaituzte Espainiarekin. Ezin da ahaztu foruena derrigorrezko harreman bat bideratzeko modua dela, baina horrekin derrigorrez jotzen duzu harreman hori Espainiarekin dela, eta alde bikotasuneko harreman bat egon behar duela. Hortik dator “ez inposatu, ez eragotzi” Josu Jon Imazen esamolde hura. EAJ-ren norabidea hori izango dela dirudi.

### **Eta zergatik uste duzu bide horretatik estatugintza eta herrigintza ez direla sendotuko?**

Bide horrek Espainiako Konstituzioarekin egiten du topo eta, batez ere, bere ibilbide osoan Auzitegi Konstituzionalak autogobernuaz egin duen irakurketarekin. Doktrina hori guztia bertan behera uztea oso zaila da. Alde batetik, legedi ia guztian dituzu oinarri lege batzuk autonomia markoa zein den argi definitzen dutena eta, gainera, azken 25 urteetan hori asko murriztu da. Espainiako sistema politikoa dagoeneko oso esparru itxia da.

Eskubide historikoen bideak markatzen zaitu, eskema hori alde bikotasunean oinarritzen da, eta gainera ez da berdintasunezkoa, harremanaren interpretazioaren gaitasuna batek bakarrik duela, eta harremanaren bilakaera alde horrek bakarrik definitzen du.

**Hori EAJren eremuaz egiten duzun analisia. Ezker abertzalea ere lehengo zikloan harrapatua dagoela aipatu duzu, hau da, lehenik konpondu gatazka armatuaren ondorioak eta gero ekin berriz independentziaren bideari. Ba al du beste irtenbiderik?**

Estatugintzari, naziogintzari, herrigintzari lehen-tasuna ematen badiezu, agian presoen gaia lehenago eta hobeto konponduko duzu zuzenean horretan tematuta baino. Zuk lehen-tasuna normalizazioan jartzen baduzu, presoak, ETaren desegitea... Estatuaren esku zaude. Zuk benetan sinesten baduzu alde bakartasunean, ezin duzu



**Ezin da ahaztu foruena derrigorrezko harreman bat bideratzeko modua dela, baina horrekin derrigorrez jotzen duzu harreman hori Espainiarekin dela, eta alde bikotasuneko harreman bat egon behar duela”**

zure estrategia osoa beste batek erabakiko duenaren menpe utzi. Estatuarentzat benetako gaia independentziarena da, eta lortzen badu zu normalizazioaren gaian katramilatzea, hark ez du presarik. Orduan, nola desblokeatzen da ikuspegi etiko batetik, sufrimenduaren aldetik lehentasunezkoa den gai bat? Bada, akaso zeharkako bide batetik. Agian indarrak metatu behar dira eta gero Estatuarekin denari buruz hitz egin, presoen eta erabaki eskubideaz. Agian biak aurreikusita daude, A plana (normalizazioa) eta B plana (independentzia), eta batek porrot egiten duenean bestea aktibatzen da, edo biak batera, baina uste dut A plana bere mugetara gerturatzen ari dela. Negoziazioaren ereduak gaindituta dago jada paperetan, baina ez oraindik zenbaitzuen buruan.

### **Eta zeren inguruan egin behar da indar metaketa? Jendeak zergatik erabaki behar du mobilizatzea?**

Etorkizunari begira ilusioa eskaini behar diozu jendeari, oso zaila da iraganeko gaiekin herritarrek indar metaketara erakartzea. Presoen eskubideen inguruan, adibidez, dinamika desmobilitatzailea eta kontraesankorrean hasten dira halabeharrez: batetik eskubideen defentsa, presoak gerturazea eta abar, interpelazio gisa, baina bestetik, eremu horretan zenbait gauza lortzeko, amore eman behar duzu zure historian, errealitatea ulertzeko eta irakurtzeko zure interpretazioan, barkamena eskatu... Eta hori guztia, egin behar da, egin behar delako, helburuak merezi

duelako baina, era berean, horrek ez du ilusio handirik sortzen herritarrengan.

**Dena den, bakearen ideiak oraindik sortzen du ilusioa herritarrengan.**

Uste dut ilusio sortzaile gisa hori amortizatuta dagoela eta bereak eman duela.

**Beraz, bakean gaude eta listo.**

Bai, eta uste dut estatugintzaren ikuspegitik gizartea beste urrats batzuk eskatzen ari dela. Euskal gizarte abertzalearen agenda eta alderdi abertzaleen agenda ez daude koordinatuta.

**Eta euskal gizartean, non ikusten duzu zuk independentziarekiko ilusio eta eskaera hori?**

Ilusio hori apurka ari da mamitzen. Estatugintzaren gaia jorratzen ari diren taldeak sortzen ari dira han-hemenka, eta alderdi abertzaleek eskufrenoa jarrita dutela dirudi. Unibertsitatean behintzat sumatzen ditut mugimenduak, eta horrez gain, ni behintzat dei ugari jasotzen ari naiz oso esparru desberdinetatik gai honi buruz hitz egiteko. Zerbait egosten ari da.

**Hau da, Katalunian bezala, hemen ere gizarte zibila mugitzen hasi dela esan nahi duzu?**

Agian bai. Bada ageriko desberdintasun bat Kataluniarekiko, hemen ez da egon gizarte zibil autonomorik han bezala. Hemen, gatazka armatu bortitzak hala behartuta, gizarte zibila alderdi politikoen esanetara egon da. Kataluniako Batzar Nazionalan (ANC) badira alderdiak, baina hemen baino askoz gizarte autonomoagoa dago. Hemen ere, fronte ikuspegi horiek desagertzen diren neurrian, gizarte autonomia sendotuz joango da.

**Ekimenak aipatuta, hor dago Udalbiltzaren berpiztea... Hori zuk aipatutako ezker abertzalearen B planaren aktibatze maila bat izan liteke.**

Izan liteke, baina denbora beharko da bloke soberanista horren berrantolaketan (diskurtsoa, eredu... ) beharrezkoak diren osagaiak argitu arte. ELAkoekin hitz eginda, badirudi eredu Lizarra-Garazikoa dela oraindik, eta neurri batean, eragile soberanistak oraindik han bizi dira. Egungo egoeran, badira soberanismoan txertatzeko oso ikuspegi interesgarriak, esate baterako arlo sozialean.

Lizarra-Garaziko garaian desobedientzia zibilaren ardatza arlo identitarioa zen, euskal karneta eta gisakoak. Gaur egun halakoak ez ditu inork aipatzen, desobedientzia zibila gehiago da krisiari aurre egiteko tresna bat: Werten legea ez aplikatzea, soldatetako gain sariak ordain ditzatela, gai sozialean murrizketarik ez onartzea... Hemen, soberanismo sozialaren ikuspegi hori gero eta indartsuagoa da, eta horrek gizartean zabaltzeko aukera ematen du, soberanismoaren aldaera honetan azpimarratzen delako, guk, herritarrok, parametro justuagoetan oinarrituta, krisia beste modu batean kudeatu nahi dugula.

**Askotan aipatzen da independentziarekin hobeto biziko garela eta gisakoak. Honekin lotua dago aipatzen ari zarena?**

Orain dela gutxi irakurri nuen Rosanvallon *La Sociedad de los iguales* liburua, eta bertan aipatzen du munduan “aberatsen sezesioa” gertatzen ari dela: aberatsen auzoak, beren aisialdi lekuak... Ideia horretan oinarrituta, eta soberanismo erduei begira, hemen ere bada “aberatsen sezesioa”, baina badira beste bi ere, “desberdinen sezesioa” eta “justuen sezesioa”. Aberatsagoen sezesioak hobeto bizitzea bilatzen du, aberatsago, Katalunian badago eta Euskal Herrian sortzen ari da apurka.

Baina badira independentziaren beste bi ikuspegi. Bata “desberdintasunaren sezesioa” da, hau da, soberaniaren arrazoiak berezitasun bat defenditzea du oinarri. Esan dezagun ikuspegi nazional ohikoa dela: identitatea, hizkuntza, euskal kultura... “Desberdinen edo berezien seze-

sioa” gutxietsi gabe, “justuen sezesioa” izan dai-teke giltzarria: bere oinarria gure gizartea askoz modu justuago eta orekatuagoan kudeatzean jar-tzen duen aldetik. Hiru sezesio molde hauek oraindik ez daude behar bezala garatuta, baina hasi dira mugitzen eta, Katalunian ikusi den bezala, ez daude kontrajarriak. Gizarte bakoitzaren ezaugarrien arabera, batek edo besteak har-tuko du indar handiagoa. Gurean, justuen seze-sioaren ikuspegi hori indartuko dela uste dut.

**Baina batzuetan “aberatsen sezesioa” eta “jus-tuen sezesioa” oso gertu daude, ezta? (batez ere lurralde aberatsagoak pobregaoetatik bereizi nahi dutenean).**

Hor kontua da bi argudio horiek teilakatzea eta ahalik eta jende gehien biltzea horien azpian. Iaz Adrian Zelaia ekarri genuen masterrera eta hitz egiten genuen Euskal Herrian ikuspegi sozio-ekonomikoaren aldetik *new deal* berri bat behar genuela, hitzarmen berri bat: bildu gizarteko enpresa eta finantza esparru aurrerakoienak eta gehiengo soberanista sindikala eta hasi hitz egi-ten: zein politika fiskal behar dugu, aberastasuna nola banatuko dugu, gehien eta gutxien irabazten dutenen arteko tartea zein izango da...

**Nagusiki kooperatiben esperientziaz ari zarela uste dut, eta mundu hori eta sindikatuena ezer gutxitan aritu izan dira elkar lanean.**

Bi aldetatik egin behar da erreflexioa, baina *new deal* edo hitzarmen berri horretan, sindikatuek ere beren lana aldatu beharko lukete enpresa munduan; konfrontaziora bakarrik bideratu beharrean, kudeaketa partekatuaren eredian sakondu behar dute, teoria partehartzaileak enpresa mundura eramanez.

Baina orain arte halako itun batean parte har dezaketen sindikatuak (ELA, LAB...) oro har, konfron-tazioaren eredian egon dira, langileen interesen defentsan. Kudeaketan eta jabegoan parte hartze-aren kontu horiek nahiko arrotzak zaizkie.

Sindikatuaren erresistentziaren diskurtso hori beharrezkoa da, are gehiago egun, hori lehen trintxera da. Baina, bestetik, uste dut sindikatuek ardura handiagoa hartu beharko luketela enpre-sen kudeaketan, gobernugintza sozio-ekonomi-koan enpresa barnean. Eta ez nabil elkarrizketa sozialaz, bide hori erreta ikusten baitut. Euskal Herrian badago auzolan estatu bat, estatu koo-peratibo bat sortzeko kultura politiko egokia.

**Goazen lurraldetasuna eta independentziaren gaia jorratzera. Gaur egun, EAEn gehiengo teoriko bat independentista izan liteke, Nafarroan ez. Nola jorratu behar da independentziaren gaia errealita-te hori kontuan hartuta?**

Euskal Estatuari bidea zabaltzen. *Herrigintza eta erakundeak* liburuan bi kontzeptu landu ditugu, independentzia materiala eta formala. Materiala izango litzateke Euskal Herriko herritarrek haien arteko era guztietako harremanak trinkotzea. Estatugintza kontzeptu dinamikoa da eta, beraz, kontua ez da independentzia baduzun ala ez, bai-zik eta egunero ari zarela estatua eraikitzen edo desegiten.

**Adibidez?**

Jaurlaritzako Herrizaingo Sailburuak esaten badu Ertzaintzak bete ditzakeela segurtasun eskume-nak berak bakarrik eta Guardia Zibila soberan dagoela, hori urrats bat da estatugintzan. Urrats diskurtsiboa bederen. Areago oraindik, aldundi

“

**Bai, posible da EAEk independentzia bakarrik aldarrikatzea, Nafarroa gabe. Independentzia materialaren ikuspegitik kristalizatze maila desberdinak daude eta posible da lurraldeen arabera hainbat lorpen maila izatea”**

batek dekretu bat egitea zerbait ordaintzeko Madrildik hori debekatzen dutenean... EAJk esaten du euskal Estatu “gehiago” behar dugula, hortaz, neurri batean estatua badugula, egiten ari garela, eta alde batetik arrazoia emango nioke, eraikitzen ari den euskal Estatuaren emaitza dinamikoa baita euskal lurraldeetan daukagun egituraketa juridiko-politiko administratiboa. Kontua da, egituraketa nora begira jartzen den. Dagoena estatugintzaren norabidean jarriko den ala dagoenaren alde subordinatua erreproduzitzen tematzten ari garen. Ikuspegi material horretatik, klabea da egunero estatugintzan pentsatzea, eta aritzea, legea urratu behar bada ere.

Horrek zer esan nahi du lurraldetasunarekiko? Ikuspegi material horretatik batzuetan estatugintzaren kristalizatze juridiko-normatibo maila desberdinak lor ditzakezula. Gehiengo demokratikoaren arabera, lurralde batzuetan era batera zaude eta beste batzuetan bestela.

**Horren arabera, posible ikusten duzu, esaterako, EAEk independentzia berak bakarrik aldarrikatzea, Nafarroa gabe? Horrek beldur handia sortzen du abertzale askoren artean.**

Bai, independentzia materialaren ikuspegitik kristalizatze maila desberdinak daude eta posible da lurraldeen arabera hainbat lorpen maila izatea. Garrantzitsuena da azpitik egiten den lana eta lurraldeen arteko loturak bideratzea. Udalbiltzaren zeregina, adibidez, azpiko lan hori jorratzea da. Independentzia ez da aldarrikapen bat. Independentzia ez da erabakitze eskubidearen egikaritzaren ondorioa soilik. Independentzia egunero egiten (edo desegiten) ari gara.

**Historiari begiratuta, dena den, horrek bere arriskuak ditu, begira Irlandako kasua.**

Mundua aldatu dela esaten da, baina independentziaren gaian, oraindik oso sartuta dauzkagu XIX. mendeko estatuen formulak, eta bada ordua kontzeptualki jauzi bat emateko. Neurri



IÑIGO AZKONA

**“Estatugintza kontzeptu dinamikoa da eta, beraz, kontua ez da independentzia baduzun ala ez, baizik eta egunero ari zarela estatua eraikitzen edo desegiten”.**

batean Krutwig-en eskemetara —edo, berriki, Sassenen lanetara— itzultzea da. Bordeletik eta Piquerasera bitartean dagoen Vasconia Handia horretan, “euskal” trinkotze dentsitate maila desberdinak egon daitezke ikuspegi identitario-kulturalari edo sozio-ekonomikoari dagokionez. Sare horien kristalizatze juridiko-politikoak euskal estatugintzaren adierazpenak dira. Gune batzuetan jada posible da herria burujabea izango bailitzan aritzea. Zeren zain gaude? Borondatea egonez gero, legea ez da inoiz muga izango. Dena den, gehiengo demokratikoetan oinarritu nahi baduzu, asimetria horiek lurralde bakoitzaren borondatearen arabekoak izango dira.

**Ikuspegi historikoa, Nafarroako Erresuma... ikusmolde horrek egin du bide bat, batzuentzat laguntzen du independentzia prozesuan eta garrantzi**

**handia ematen diote; beste batzuentzat traba da. Nola ikusten duzu?**

Nafarroako erresumaren hausnarketaren ekarpena batez ere kontakizuna edo errelato alternatibo bat eskaintzearena da. Hau da, eskubide historikoen kontakizunaren aurrean, beste kontatera molde bat ekarri du, iraganari begira hainbat kontakizun daudela azpimarratuz eta etorkizunera begira ere hainbat molde egon daitezkeela, tartean independentziarena, iraganean Nafarroako erresuma izan zen bezala, foralismora mugatu behar izan gabe.

**Eta erkidego bien arteko elkarlanerako marko egonkorren ideia? Hor ez litzateke konfrontazio biderik erabiliko.**

Hori ere baliagarria izan daiteke eta balio dezake konfrontaziorako baldin eta estatugintzan aurrera egiteko tresna gisa erabiltzen bada. Hori argi ikusi zen Ibarretxeren proposamenean, hiru probintziatarako zen, baina estatugintzan aurrerapauso kualitatiboa zekarren. Zer gertatu zen? Euskal abertzaletasunaren ikuspegitik oso gaizki kudeatu zela. EAJk Ibarretxe bakarrik utzi zuen eta honek ez zuen gaitasunik izan gehiengo soberanistarekin beharrezkoa zen harremana egituratzeko. Ezker abertzaleak, aldiz, negoziazio eskema bat abian jarria zuen eta uste zuen hori guztia negoziazioz lortuko zuela. Ereditu honek guztiak porrot egin zuen eta honekin batera Ibarretxek ere bai.

**EAEri begira, eta independentzia prozesuak kristalizatzeko, zer egin dezake orain Bilduk?**

Lehen aipatutako kinka estrategikoan murgildua dago eta batera kudeatu nahi diren aukera horiek kontraesankorrak dira, batean kontsentsua behar duzulako eta bestean konfrontazioa, ezin dira batera eraman. Akademiaren mundutik esatea samurra da, baina iruditzen zait konfrontazioarena azkartu beharko lukeela. “Justuen sezesioa” oinarri hartuta, soberanismoa era sendoagoan

“

**ETAren armak eta desegitearen gaia: aldebakartasunean sinesten baduzu, zuk armak herriari entregatu ahal dizkiozu –modu sinboliko edota materialean–”**

artikulatu eta horrekin abiatu, jakinik, horretan ez duela EAJren laguntzarik izango. Hasieran behintzat.

Mekanismo batzuk landu behar dira esparru horretan: polarizazioa, artekaritza, irainen kudeaketa... Gai hau suspertzeko, adibidez, irainen erabilera egokiagoa egin behar dugu, irainak ugarriak dira, eta horietako baten edo batzuen bidez, Euskal Herria Espainiarekiko iraindua irudikatzea lortu behar da. Sezesio prozesuetan irainen kudeaketa oso garrantzitsua izaten da. Ibarretxe planera itzuliz: Ibarretxe joan zen Madrilerara zintzo-zintzo, bere plana azaldu eta ikusi nola hartu zuten... Lehenik, eztabaidarako aukera ere ukatu, bigarrenik, epaitu, aitzakia merkea erabiliz. Lehendakari bat horrela iraintzea, edozein lehendakari izanda ere, ez zen herriari egindako irain gisa irudikatu. Hori irain handia zen herri batentzat, baina ez zen baliatu behar bezala.

**Nazioarteari begira, Eskozia eta Kataluniako prozesuak hor daude, gurea ere lagundu dezaketena.**

Nazioarte mailan aukera asko zabaldu dira, batez ere Quebec-ekin. Horrek ekarri zuen erabaki eskubidea modu negoziatu eta normalizatu batez eraman ahal izatea, molde homologagarria ekarri zuen eta orain gu ere molde horretan gaude, Eskozia eta Kataluniarekin batera. Honek ekarri du autodeterminazio prozesu klasikoek zituzten mugak gainditzea. Europa berrantolake-



ta prozesu batean sartua dago, eta gurea moduko herri txikiei aukera-leihatila berri bat ireki zaie. Eragile geopolitiko sendoa izan nahi badu, zentralizatzearen bidea hartu beharko du Europak, baina nabarmena da nazio-estatu zaharrak ez direla prozesu horretarako egitura eraginkorrenak.

Eskozia eta Kataluniaren kasuetan aberatsen sezesioak indar handia duela ikusten dut, eta gurean aldiz, justuen sezesioa indartsuagoa da. Eta hori seguruenik da, hemen bi nazio horietan baino “estatu gehiago” dugulako, batez ere kontzertua eta hitzarmena ditugulako. Beste horietan kezkatuago daude aberastasuna eskuratzearekin, eta hemen, berriz, aberastasuna hobeto banatzearekin. Edota, gure kulturaren defentsarekin.

### **Kataluniako egoera nola ikusten duzu.**

Uste dut kontsulta egingo dutela eta, gainera, hori mesedegarria izango dela Espainiarentzat, aitzakia emango diolako Kataluniarekin estatus berri bat negoziatzeko. Katalunian, Espainian baino argiago dute prozesua. Espainian ez dakite ongi nola jokatu.

**Independentismoaren esparru txiki batzuetan aipatzen da uko egin behar zaiola Espainiak eratu-tako egituretan parte hartzeari, Espainiak ezarritako tresnekin inoiz ezingo delako independentzia eskuratu. Adibidez, Espainiako hauteskundeetan parte hartzeari uko egin beharko litzaiokeela.**

Konfrontazioaren ikuspegitik unerren batean hala izan beharko du, baina azken urratsa da, ez dut uste une hori heldu denik. Desobedientzia zibilak planifikazio eta ikuspegi estrategiko handia eskatzen du eta oso ongi pentsatua egiten ez bada, Estatuak bere zigorrekin berehala desaktibatzen du. Gipuzkoako Aldundiari askotan eskatzen zaio desobedientzia zibila, baina hori aurrea eramateko sindikatuekin eta beste sektore askorekin estrategia bateratu bat planteatu behar duzu, bestela ez luke inongo eraginik izango.

Horrez gain, ezin da B agenda (automugaketarik gabeko estatugintza demokratikoa) indarrez aktibatu, gatazkarenean gai garrantzitsuak alde batera utzita. Adibidez, ETAre armak eta desegitearen gaia: aldebakartasunean sinesten baduzu, zuk armak herriari entregatu ahal dizkiozu –modu sinboliko edota materialean–, besteak beste Guardia Zibilak hartu nahi ez dizkizulako, eta hor izango zaituelako armekin zer egin jakin gabe, *sine die*. Ondoren ETA desegiten da eta ea zer egiten duen gobernuak presoekin. Aldebakarreko erabakiek –erakunde armatu gisa ETAre desegiteak berak– kinka larrian jarriko lukete Estatu eta beste estrategia eraikitzaileagoi atea zabalduko. Are gehiago, atrebentzia zilegi bekit, preso askorentzat bide hori duinagoa izan daiteke, etengabe Estatutik eskatzen dizkietenak betetzen aritzea baino: orain esan hau, orain sinatu hau, gero damututa zaudela esan, gero eskatu barkamena...

**Zure ustez justuen sezesioan dago independentzia prozesuaren ardatza: ikusten al duzu eremu horretan premiazkoa den zerbaitekin eta azkar egin beharko litzatekeena?**

Errazena da ia ados daudenen artean abiatzea. Arlo sozio-ekonomikoan hainbaten arteko ikuspegia antzekoa izanik, ez da normala halako deskoordinazioak ematea. Adibidez, Gipuzkoako Diputazioa, ezker abertzale zabal hori eta gehien-go sindikala akordio batera iritsi beharko lirateke. “Gure programa sozio-politikoa gehien-go sindikalarena da” esan beharko lukete argi eta garbi, eta itun hori gizartearen aurrean argi ikusarazi. Gero beste kontu bat da, instituzioak noraino iritsi daitezkeen hori betetzean, baina helburua hori da, eta esparru horretara CCOOko jendea eta UGTkoa ere erakarri dezakezu.

Oro har, baikor naiz, gizartean bada aldaketarako behar hori eta, beraz, eskema berriak sortuko dira. Hitz magiko bat balego, hori, aldebakartasuna da. Borondate demokratikoak ez du mugarik. ■





**Mertxe Colina**

Abertzaleen Batasuneko  
buruzagia

# Ipar-haize ufadak independentziarantz

**H**asiera batetik lortu beharrekoa elkar-ezagutza da, mugaren alde bietatik. Honek berebiziko garrantzia dauka, hainbat faktorerengatik errealitate bat baino gehiagotan banatuta bizi garelako.

Muga fisikoek, Historiako gertakariak (Frankismoa Hegoaldean/ Mundu gerlak Iparraldean), baita kultura desberdinetan bizi izanak, guk nahi ez genituen ezberdintasun filosofiko-kulturalak sortu dizkigu. Egoera politikoan ere ikus daitezke, Iparraldeak ez baitu onarpen instituzionalik, nahiz eta 200 urte diren borroka horretan, departamentu eskaera, autonomia edo instituzio berezien aldarrikapenarekin adibidez. Gaur egun oraindik mugaren bi aldeetan errealitate hauen kalteak nabarmenak dira: prepotentziako jarrerak edo frustrazio espresioak besteak beste.

Honetaz gain, eskakizun hau nola azaldu abertzaleak ez direnei? Galdeketa, edozein herriren eskubidea dela aldarrikatu behar dugu, gurearena barne. Jendarteari independentziaren beharrezana, ondorioak, nola gauzatzen den... azaldu behar zaizkio eta sozialki legitimizatu. Nola? Iparraldean elkarlean hainbat proiektu aurrera eramanez, eskubide-betetzearen aldarrikapenean oinarrituz. Nahiz eta korrante politiko ezberdinetakoak izan, gai gara elkarrekin proiektuak abian jartzeko: Batera, Laborantza Ganbara, Seaska, errepresioaren aurkako mugimendua Aurore Martinen kasuarekin besteak beste. Gaitasun hau baliatu behar dugu egitasmo berrian lan egiteko.

Honez gain, azpimarratu beharra dago aro berri batean gaudela. Orain arte batzuek borroka

armatua aitzaki modura erabiltzen zuten elkarrizketa saiakerak zapuzteko: ez da gehiago oztupoa. Tamalez, zenbaitek bere horretan jarraitzen dute, nahiz eta testuinguru aldaketa argia egon. Gaur egun bakoitzak bere ikuspegia eta proiektua mahai gainean jarri dezake inor baztertu gabe. Elkarlanetik lortutako adostasun zabal eta indar-metaketak, eskubideak legetan inkorporatzea ekarriko luke, hauen onartaraztea “inposaketa positiboa”-ren bidez, “legearen funtzioa elkarbitzita” delako.

Lankidetzaren honen adibide eta Lizarra-Garazi garaiko porrotaren ondorio nagusia, Udalbiltzaren gelditzea izan da. Euskal Herriko hautetsi guztien kolaborazioa ezinbesteko lan tresna zen “autonomian” bizitzeko: sozialki, ekonomikoki, hizkuntzari dagokionez, hezkuntzan... Mugaren alde bietan, bertako erabakiak herritarrek zuzenki izendatutako hautetsien bidez bertan hartzea alegia. Ez al da independentziaren lorpenerako tresna egokienetakoa? Aurrera eramaten baldin badugu, ez ote du ahalbidetuko instituzio legegileen sortzea?

Zaila ikusten bada ere, zenbait amets gauzatzen dira, edo behintzat egi bihurtzeko, gure esku dagoena egin behar dugu. Katalunia, Eskozia eta beste hainbat herrialdeetako haize ufadei jarraitzeko aukera dugu... onartezina litzateke ez baliatzea. ■





**Joseba Egibar  
Artola**

EAJko GBBko presidentea  
eta legebiltzarkidea

# Euskal estatua, nola eta nolakoa

**E**uskal Nazioa osatzen duten herritarren elkarte da Euskal Herria. Politikoki, Euskadi izena duen Nazioa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa biak, Lapurdi eta Zuberoak osatua. Nazio kontzientzia duen herriari, zer izan nahi duen erabakitzeke eskubidea dagokio, nazioartean funtsezko giza eskubidetzat aitortua: autodeterminazio-eskubidea.

Eta hortik, herritarrek hala nahi badute, Estatu izateko eskubidea. Etorkizuneko Euskal Estatua-ren mamian sartu nahi nuke orain.

Benetan aldi berri bati eman nahi badiogu sortzea, Euskal Estaturako bidean aurren-aurreneko urratsa hauxe onartzea da: ez dagoela ezer giza duintasunaren aurrekoa denik edo bere gainetik dagoenik, ez ideia edo egitasmo politikorik, ez hauen defentsarik, ez bidegabekerien salaketarik, ezta Estatu arrazoirik ere. Euskal Herri independente eta sozialistagatik giza eskubideak tiroz eta bonbaz txikitzea justifikatua dagoela denbora askoan sinetsi eta barneratu du makina batek, heldu nahiz gazte. Ez dago zalantzarik: zuztarretik aldatu beharko ditu pentsaera eta sentiera. Bai pertsonalki bai kolektiboki.

Beste mugarri bat ikusten dugu ezinbestekoa: mugarri demokratikoa. Alegia, ez dago ideia edo egitasmo politikoen alde egitea galarazterik ezta ere horiek gauzatzeari betoa jartzerik, bide bakesu eta demokratikoen bidez bakarrik defendituak direnean eta gizartearen gehiengoa alde daukate-nean. Printzipio honek erabakitzeke eskubidera garamatza. Euskadik, herria denez, bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea dauka eta hori gauza-

tzeko akordio berri bat egin behar da. Azken hitza herritarrek dute. Eta gero, egokitzapen juridiko-politikoak egin, baiezkoa nagusituz gero.

Gure helmuga ez da edonolako Estatu. Ez dugu nahi historian porrot eginda geratu den eredu sozialista/komunistarik. Ezta ere indarrak metatzera hots eginez hasi eta botere-metaketan amaitzen den alderdi bakarreko estatu klaserik. Arrotza da Euskadiko kultur politiko, sozial eta ekonomikoan, baita XXI. mendeko Europan ere. Are okerragoa, beste indarkeria baten atea izan daiteke. Gogoratu besterik ez ditugu Sobietar Batasunaren eta Ekialdeko Alemaniaren porrota; ikusi baino ez daukagu haien sokako zenbait tokitan gertatzen dena: injustiziazko egoeretan salaketa bidezkoak egin eta, agintera iritsitakoan, injustizia erein, boto bidez lortutako gobernua sistema itoa bilakatuz.

Europar Batasunean gaude, zorionez. Bideak bestelakoak dira ipar eta erdialdeko sozialdemokrazian, Norvegian, Danimarkan, Alemanian... Justizia soziala eta elkartasuna ederki josten dira enpresak aurreratzearekin eta ekonomia indartzearekin; arlo publikoak eta pribatuak, enpresariak eta sindikatuek badakite elkar hartzen herri-beha-

rrei erantzuteko; elkarrizketa, ardura eta errespetua dira lege; gehiengoaren aginduak betezale, demokrazia sendoak dira. Horrelako Estatuetera begiratzen du EAJk.

Gure bide-orrian, eskubide historikoak gaurkotu eta estatus politiko berria proposatzen dugu: Euskadiko zazpi herrialdeak Nazio izaerako egitura politikoan konfederalki elkartuta, nazioaren batasuna eta herrialdeen berezitasuna bermatuz eta estatuekin kideko harremanak ziurtatuz. Pluraltasuna gatazka-gune izaten da eta serio hartu

beharra daukagu, aske eta bakean bizitzeko, hitza eta begirunea zor dizkiogula elkarri.

Ez da elkarren aurka borrokan aritzeko garaia. Herri-mugimendua piztu eta indartzeko, bat egitea da motorra. Horrela erakarriko dugu jendea marko juridiko, ekonomiko, instituzional eta politiko berriaren aldera, Euskal Estaturako bidean. Eta bitartean, gure aurrekoek utzi ziguten aldarria hots egingo dugu: Gora Euskadi Askatuta! ■



EUSKALERRIA IRKATIA



**Floren Aoiz**

Independentistak  
erakundeko kidea

## Independentzia epeka, zatika?

**I**kuspegi aldaketa sakon eta zabala gertatzen ari da Euskal Herrian independentziaren aitzin. Afera ez da zenbaki esparruan mugatzen.

Nabarmena da gero eta gehiago garelako independentziaren aldekoak, baina aldaketa harago doa, aldekoak, kontrakoak eta bestelako iritzia dutenak aldatzen ari baitira independentziari so egiteko era. Izan ere, bestela ikusten da estatu berriaren osaketaren aukera.

Independentziak ekarriko omen lukeen hondamendiaren aurreko beldurraren propaganda estrategia honen adierazpena dugu. Lehen, independentziaren kontrakoek ez zuten horrelako mezuetara indarrez jotzeko beharrik sentitzen. Gaur egun berriz, independentzia lekua hartzen ari da eztabaida eta jende askoren expektatibetan, gerta daitekeen zerbait gisa hartzen baita.

Independentziaren hautua ez da oraingoz hegemonikoa gure herrian eta begibistakoak ditugu lurralde mailan atzematen ahal diren ezberdintasunak, baina orohar, aukeraren aurreko joerak aldatzen ari dira.

Ikuspegi aldaketa honek hainbat eztabaida piztu edo indartu ditu. Eskoziaren ibilbideak eta Catalunyako gertaerek irakurketa ezberdinak bultzatu dituzte, besteak beste lurraldetasunaren inguruko eztabaida zaharren itzulera.

Gauzak honela, Euzkadi-Euskadi hirukiaren bertsio zaharberritua agertu zaigu, oraingoan ere. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen duen



espainiar autonomiak aldarrikatu beharko luke independentzia ala itxoin beharko luke beste lurraldeak “iritsi” arte? Batzuek esparru hipotetikoan kokatzen dute galdera, beste batzuek berriz, gaur egungo lehia gisa hartzen dute.

Azkenengoei buruz, zer esan? Barakaldon independentziaren asmoak duen babesa aipatzea erraza litzateke, hainbat irakurketa sinplista kolokan jartzeko, baina ez da haraino iritsi behar. Aipa ditzagun Donostia, edo hiruki horren hiri nagusia den Bilbo. Non dago, bestalde, gaur egun independentzia aldarrika dezakeen Gasteizko Parlamentuaren gehiengo independentista? Urkulluren berririk ez dute halakorik esaten dutenek?

Sakonagoa da maila hipotetikoan pausatzen den galdera. Izan ere, zer egin lurraldearen espa-

rru zehatz batean urrats handiak emateko aukeraren aurrean? Erantzuna ez da erraza. Gure herria ez da Eskozia, argi esan dezagun. Gure lurralde-tasuna kolokan dago, kanpoan nahiz barnean. Edozein independentziarako estrategiak hau hartu behar du aintzat. Nola, berriz? Ene ustetan, zatiketa gainditzeko, ez zatiketean oinarritzeko.

Zatiketa pentsamenduan ere badago errota, batzuek zatiaren ikuspegia lehenesten dutelako, jabetu ala ez. Alderdi edo bestelako interesengatik, batzuetan, zatiketaren aurreko etsipenaz, beste batzuetan.

Ene ustez, zatiketaren aurreko etsipena independentziarako oztoporik handienetakoa dugu. Menpekotasunaren hegemoniaren ez dago askatzerik. ■



DANI BLANCO



**Pako Aristi**

Idazlea

## Indepen... zer?

**E**uskal jendea oso galduta ikusten dut independentziaren gaiaren aurrean, eta harritzen naiz, zeren, teoriarik, independentziaren bidea jorratzeko sortu zen ETA, eta PNVren lan instituzionalak ere helburu hori agertu izan du, lotsati eta urtean behin bada ere, jomuga.

Baina ondorioa zein izan da, ETA sortu zenetik 50 urte eta PNVk autonomismoa inauguratu zuenetik 33 joan direnean? Jendeak nahastuta jarraitzen duela independentziaren inguruan.

Beraz, hiru baieztapen egiteko moduan gaudela esango nuke:

- 1- Aipaturiko bi jokamolde horiek, zein armatuak nola autonomiko/instituzionalak, ez dutela balio independentzia lortzeko; beraz, abandonatu eta gainditu beharreko bideak direla.
- 2- Gure politikoen gain dagoela, lehenengo eta nagusiki, gaur independentziatik hain urrun



**Independentzia ukatzen dizun sistema politiko batean parte hartzeak esan nahi du abiapuntutik bertatik uko egiten diozula independentziari”**

egotearen ardura eta errua, eta bigarren lekuan herriaren gain, politikoei itsuki jarraitu dielako energia sozialen indar zoragarria haien kontrolpean utziz.

- 3- Gure politikoak sektarioak direla, gregarioak eta prekarioak, eta ezaugarri horien pean funtzionatuz ezin dela arazo nazional bat konpondu, gutxieneko adimen ideologikoa, batasun estrategikoa eta begirada global baten ahalmena eskatzen dituen prozesua baita. Ez dut ezer haien aurka, baina akatsak esan egin behar dira, konponduko badira; akatsak ez seinalatzeak eternizatzeke bidean uzteko baino ez du balio.

Hemen ez da politika altua egin, baxua baizik, txikia, itxia, lokalista, fragmentatua, menderatua eta kolonizatua. Hori aldatzeko zaplasteko kontzeptual bat behar du kasta politikoak.

Esan behar da, baita ere, erabakitzeko eskubiak ez digula independentziarik ekarriko. Gure soberania mendeetan zapuztu eta ukatu duen etsai politikoarekin (eta gure lurrean dituzten ordezkariekin) hitzartu behar baduzu erreferenduna, argi dago betoa jarriko diotela, edo eurek irabazi dezaketenean bakarrik emango digutela.

Independentzia ukatzen dizun sistema politiko batean parte hartzeak esan nahi du abiapuntutik bertatik uko egiten diozula independentziari.

Herri bat indartsua denean, independentzia aldarrikatu, ezarri eta defendatu egiten du; gero antolatuko du erreferenduma, konstituzio berria onartzeko.

Herri bat indartsua ez bada, ez du balio politika egiteko, eta erresistentziara dedikatu behar du.

Independentziarako estrategian beharrezko osagaiak hauek dira:

- Historia ezagutzea, eta bere ondorioak, konkista, okupazioa, inperialismoa, biolentzia, kolonizazioa.
- Masa kritikoa sortzea, independentziaren desioa hedatuko duena.
- Tresnak: azpiegitura, finantzazioa, ideologia, teknologia, komunikazioa, behartzeko boterea.
- Subjektu politikoa eratzea.
- Botere legegilea (Asanblea Nazionala).
- Botere betearazlea (Gobernu Probisionala).
- Independentziaren deklarazioa.

Oso garbi izan (eta esan) behar dugu okupazio egoera batean gaudela, eta horrek eragindako baldintzak gainditu.

Mezu garbiak helarazi behar zaizkio jendeari, funtsean hiru hauek:

- 1- Independentzia ona da.
- 2- Independentzia lor daiteke.
- 3- Independentzia da, herri baten antolamendurik gorena izateaz at, ondorengoei utz deizaiekegun herentziarik onena.

Hau guztia garatuko duen Ideia Politikoen Laborategia behar du urgentziaz Euskal Herriak. ■





**Carles Puigdemont**

Gironako alkatea (CiU)

## Zaila, baina izango da

**K**ataluniak Estatu lortzeko prozesua bere azken fasean sartu da, seguruenik konplexuena eta korapilatsuena. Kosta ahala kosta herritarrak burujabetza kontsulta batera deitu behar ditugu, eta egoera horren mugara iristen garen neurrian, posizioak gero eta gehiago definitzen dira.

Egoera berria da, eta Estatu espainiarra inoiz ez da egon horretarako prestatua. Itsasoz haragoko bere jabegoetako independentzia asko ezagutu ditu, mingarria askoren harrotasunerako eta areago hainbat klase ekonomikorentzat, baina oso onargarriak (eta desiatua) herritarren gehiengoarentzat.

Egoera ezezaguna da, eta tentsio asko horren ondorio dira. Europari lotutako Estatuak da Espainia, eta Europaren izaera eta proiektua guztiz demokratikoak dira. Ez dago erreakzio klasikoetarako tarterik: elkarrizketa gailentzen da, herritarren borondatea. Dena den, hau ez da agintari espainiarren borondatea, eta haien erreakzioak zera dakarkigu: ahalegin handia, pazientzia dosi ugari eta esku ezker handia beharko ditugula prozesuaren zailtasun handienari aurre egiteko, hau da, inoren lurra ez den egungo egoeran harrapatuak geratzea. Aurrera egin behar da eta Katalunian norabide bakarrean egin dezakegu aurrera. J. M. Aznarrek esandako hura ozen entzuten da: Espainia apurtu aurretik apurtuko da –irakurri “apurtuko dugu”– Katalunia. Etsaia ez da nazionalismo katalana, ezta bere liderrak ere. Kalitateko informazioa mugitzen dutenei benetan izua ematen diena, herritarren mobilizazio maila handia da. Ez da alderdi bat: sakoneko korronea da, zeharkakoa, belaunaldi artekoa, interklasista eta interlinguistikoa, nazionalismoaren alderdi klasikoak gaudituz azaleratu dena. Espainiaentzat desafio handiena ez da Legebiltzarrean autodeterminazioa sostengatzen duen

gehiengoa, horren atzean herri osoa mobilizatu dagoela baizik.

Horregatik, gure herriak ezagutuko duen zailtasunik handiena mobilizazioarekin zerikusirik izango du. Estatuak badaki erronka hau bakarrik irabazi dezakeela katalan gizartearen desmobilizazioa lortzen badu. Eta zeregin horri ekin dio. Gerra zikinaren ahotsa –zigorgabe ez geratzeaz gain, Espainiako demokratek asaldatu beharko lituzkeen– klandestino da oraindik, baina desmobilizazioaren estrategiarekin bateragarria da. Bere helburua gizarte katalana hoztea da, eta prozesuaren gidaritzarako ezinbestekoa den klase politikoa eta berau onartu behar duen gehiengo sozialaren arteko batasuna haustea. Kataluniako politika zikintzea, lehendakaria beraren izen ona hondatzeak, estrategia hori laguntzen du, berdin horretarako moral eta ikuspegi demokratiko eskaseko txostenak faltsutu behar badira ere; horrek emaitzak ematen ditu epe laburrean, baina horretan dabile-narentzat ere arrisku handiak hartzea suposatzen du. Ikusiko dugu.

Horrekin frogan jartzen ari dira Kataluniako gizartearen heldutasun maila, erresistentzia ahalmena eta bere pazientzia. Finean, burujabetzarako duen desioaren indarra. Ez nago ezko- rren artean, ezta inozoen artean ere. Oso gaitza izango da, baina izango da. Inork ez dezala zalantzarik izan. ■



*Astero  
irakurle gehiagok  
aukeratzen dute  
**independentzia***

Jada 58.000\* gara.

